

Bero-beroan

Hondartzako gogoetak (I)

UDAKO EGUZKI GALDATAN, hondarretan etzanda egoteak askorako ematen du: azala iluntzeko, lo egiteko, irakurtzeko, eta nahi izanez gero, ariketa soziolinguistiko xumeak egiteko. Beno, orain kontatuko dudana ez dakit hain ariketa xumea den 25 urteko gorako entzuketa lanaren ondorioa baita. Zarauzko (Gipuzkoa) hondartzan eibartar taldeari belarria jarrita egindako “ikerketa” da honakoa. Nire adineko gazte koadrilaren gurasoak beti gaztelaniaz entzun ditut, korroan eseri eta hitz eta pitz. Euskaraz hitz solteren bat. Aspaldi ama hizkuntza euskara izan eta gaztelaniara jauzi egindakoak ote? Ez diet galdetu, nire irudipena baino ez da. Haien semei dagokienez, pare

bat entzun izan ditut euskaraz, primerako euskaraz. Gainerako guztiak hitz erdirik ere ez. 25 urte eta gero ateratako ondorioa: gutxi batzuk badakite euskaraz nahiz eta hondartzako eguzkipean ia inoiz erabili ez eta gehienak ez lirateke gai elkarrizketa euskaraz emateko.

Hara nolako ezustekoa! Hirugarren belaunaldia iritsi da, pardelak balantzaka dabilta hondarretan, eta aitak atzetik: “Etorri hona maitea, gero joango gara uretara”. Mende laurdenean erdaldun nuena di-da batean euskaldun! Aitatzok primeran egiten du euskaraz. Ez dakit poztu ala tristatu. Etorkizun hurbileko kalkulua ezkorra egin dut segituan: pardelak ahaztu eta haur horiek gutxieneko fundamentuarekin hitz egiten hasten direnean gaztelaniara egingo

dute jauzi. Sarri esandakoa: euskara haur hizkuntza dela ikasiko dute. Horren adibide garbia aurten frogatzeko aukera izan dut, nola ez, “testuinguru soziolinguistiko” berean. Datorren astean hurrengo kapitulua.

Roger Idiart hil da

ROGER IDIART idazlea hil zen joan den asteazkenean, abuztuaren 26an. 78 urte zituen. Azkaindarrak bertso-paperak, kanta eta pastoralak idatzi zituen bizi izan zen bitartean. Bera izan zen pastoral bat idatzi zuen lehen lapurtarra: 1991. urtean aurkeztu zuten jendaurrean *Xalbador*. Hamar urte beranduago, *Etxahun Iruri* pastoralara idatzi zuen. Kanta ezagun askoren hitzak ere bereak ziren: *Orhiko Xoria*, *Baionako suprefeta* eta *Bedatsian*, besteak beste. Irratian eta prentsan ere lan asko egindakoa zen Idiart.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Okerrena ez da pasa

Gobernuek eta nazioarteko erakundeek mezu baikorra iritsarazi digute, esanez finantza eta ekonomia krisiaren okerrena atzean utzi dugula. Krisiak, diote, behea jo du, eta burua altxatzen hasiko da. Egia da. Krisiaren txarrena pasa da bankari handientzat, zuzendari handientzat, inbertitzaile handientzat, espekulatzaile handientzat. Zeren mundu mailako egoera finantziero-ekonomiko larriaren aurrean euren ardurak ez betetzeaz gain, kapital publikozko injekzio erraldoiez “sartu” dituzte. Eta beraiek dira, ez enpresa txikiak, autonomoak eta kontsumitzaileak, arazorik gabe kredituak lortzen dituztenak. Haien galerak zergadunaren diruz sozializatu dira. Orain berriro dirua belarritik dariela hasi dira eta irabaziak, noski, ez dira sozializatzen. Krisiaren okerrena pasa da; beraientzat, noski.

Krisiaren txarrena ez da pasa enpresa txiki eta ertaineko langileentzat. Hil honetatik aurrera Lan Erregulazio Espediente gehiago ezagutuko dituzte eta langabeziara joango dira. Okerrena ez da pasa Hego Euskal Herriko langabeen %33arentzat (50.500 baino gehiago); ez dute prestazio ekonomikorik ez langabezia sorospenik bizirauteko. Okerrena ez da pasa aldi baterako milaka langilerentzat (langileen %40ak aldi baterako kontratua dauka hamar urtez lan eginda), enpresatik botatzen dituzten lehenengoak izaten dira. Okerrena ez da pasa milaka gazterentzat. 30 urte baino gehiago eta unibertsitate ikasketa eta guzti lan merkatuan sartu ezinik dabilta. Okerrena ez da pasa milaka etorkin, emakume, alargun eta pentsiodunentzat. Ozta-ozta bizi dira larrialdiko laguntza edo pentsio kaxkarrekin. Okerrena pasa da, bai, krisiaren erantzuleentzat.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Juan Carlos Moreno Cabrerak *La dignidad e igualdad de las lenguas liburuan* esanak, Nila Vigilek bere [blogean entresakatuak](#):

“Hizkuntzen arteko desberdintasunek arrazoi ez linguistikoak dituzte: arrazoi historiko, politiko, kultural, demografiko edo sozialak dira. Desberdintasun horien aurrean hizkuntz eskubide unibertsalak (giza eskubide unibertsalen parekoak) aldarrikatu, defendatu eta baliatu behar dira. Batez ere aldarrikatu behar dira hizkuntza komunitatea biziki murriztua denean edo komunitate horren aktibitate esplizituki debekatu denean. Jendeari sinetsarazi behar zaio beste hizkuntzez eta kulturez egiten dituzten balore epaiak ezjakintasunean oinarritutako aurrejuzkuak direla, eta ez guke aurrejuzku horiek finkatzen lagundu behar”.

Ez da giza eskubideen izenean

PRESOEN ARGAZKIEN auziak arazoa eta liskarra ekarri du uda honetan euskal gizartera, berdin da Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuaren politikak arazorik konpondu ez izana eta haren aginduek liskar gehiago eragitea. Garrantzitsuena ez baita arazoak bideratu eta saihestea, funtsezkoena ETAREN deslegitimazio sozialaren politika baita, eta horretan ari dela argi eta garbi erakustea. Argi dago ETAK baduela –gaur atzo baino gutxiago– legitimazio sozial maila bat eta, arrazoi askorengatik, badu logikarik PSE-PP gobernu batek legitimazio sozial horren aurka egitea. Edo lehenago EAJ-EA-EB gobernuak ere hala egitea. Beste kontua da deslegitimazio horretarako edozer onargarria izatea, orain presoek auzian egiten ari den bezala.

Une honetan, aldiz, konpontzea ez da garrantzitsuena, gogortasun irudi zehatza argi gizarteratzea baizik. Hori ari da izaten Patxi Lopez gobernuaren helburu nagusietakoa bere agintaldiaren hasieratik, bai ETAREN atentatuen erantzunen antolaketan edo bai presoekiko elkartasun adierazle izan daitekeen edozein agerpenetan.

AUZI honetan euskal gizarteak bizi dituen arazo politiko ugari islatzen badira ere, errepresio gertaera zehatz

hauetan brotxa sendoari heldu dio Aresen eta bere zertzeladekin beste arazo ugari ezkutatu, nagusiena euskal preso politikoen eta haien senideen giza eskubideen bortxaketa.

Ez naiz sartuko sufrimenduen konparaketa eta graduazioetan, baina ohikoan euskal presoek bizi dituzten baldintza oso gogorrez gain, aipatuko ditudan lau zutoinak giza eskubideen urraketa eragile sendoak dira eta presoak –pertsonak– helburu politikoetarako erabiltzen direla frogatzen dute: bat, sakabanaketa presoek eta haien senideen aurkako giza eskubideen bortxaketa da; bi, Parot Legea Espainiako Estatuak gauzatu duen tresna juridiko maltzur eta presoekiko eskubide urratzaile handiena da; hiru, preso gaixo larriekiko politikak ondorio larriak dauzka preso askorentzat; lau, “dena da ETA” politiken ondorioz, ETAkoak ez diren dozenaka preso ofizialki ETAKo bihurtu ditu Estatuak.

Aipatutako lau esparru horietan, azken 30 urteetan ehunka dira politika horien desagertzea aldarrikatu duten euskal instituzioen eskaerak, bai udal txeko, batzar nagusi zein Eusko Legebiltzarrean bertan. Madrilen agintean bat edo bestea izan, muzin egin zaie beti eskaera horiei. Gaur egun ere euskal gizartearen zati handi batek

–handienak, alderdien ordezkarien esanei erreparatuz gero– presoekiko eskubideak aintzat hartzea eskatzen du eta aipatu lau zutoin horien desagertzea. Baina ETAREN aurkako PSE-PP diskurtsoa gailentzen zaio beste edozelako diskurtsori, eta horren frogara da Eudel ere Eusko Jaurlaritzaren presioetara makurtzearena. Eskubide batzuen izenean –ETAREN biktimena adibidez– ezin dira beste batzuk zanpatu –presoekiko elkartasunarena eta haien eskubideen defentsarena esate baterako–. Akaso helburu politiko zehatzen izenean bai, baina ez behintzat giza eskubideen izenean.

PRESOEN ESKUBIDEEN defentsan aritzea ez da ETAREN alde aritzea, hori bistan da. Preso ohi bati, ongi etorri bat egitea politikoki adierazgarria izan daiteke –batez ere horietan parte hartzen duen jende kopurua eta mezua araberaren arabera–, baina maitasun agerpen hori batez ere bere gertukoeneren agerpen humanoa da, izan preso ohi dena delako kolorekoa. Komunikabide ofizial nagusienek hori esan arren, “Presoak Euskal Herrira” bandera edo beste hainbeste sinbolo ETAREN sinbolo eta elkartasun gertaera ETARENak direla esatea errealitatearen distorsio sakon eta interesatua da.

gure!
arteak
euskaraz

